

«Nafarrek ez dute Iruñeko Orfeoia ezagutzen»

Carlos Mujikak zuzentzen duen abesbatzak kontzertua eskainiko du bihar Gaiarren

Nafarroako musikazaleek ez dute benetako Iruñeko Orfeoia ezagutzen», Juan Carlos Mujika abesbatzaren zuzendariaren irudikoz. Bere aburuz, Nafarroako musika azpiegitura murrizta dela medio, askoz ikusgarriagoak dira orfeoia atzerrian ematen dituen kontzertuak Nafarroan bertan eskaintzen dituenak baino.

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA


Juan Carlos Mujika Iruñeko Orfeoiko zuzendariaren arabera, orfeoia bere kontzertuetan askoz harrera beroagoak jasotzen ditu atzerrian Iruñean baino. Bere irudikoz, Nafarroako musikazaleek benetako orfeoia ez ezagutzea da horren zio nagusia. Halaber, azaldu zuenez, horren eragilea Nafarroak pairatzen duen musika azpiegitura murrizta da. Orfeoia Bordelen emaniko kontzertua jarri zuen Mujikak argudio horren lekuko. «Bertan, ikusleek, erabat hunkiturik, hamar minutuz txalotu gintuzten. Hori hemen, Iruñean, ez da sekula santan gertatu».

Orfeoiko zuzendariak bi arrazoi nagusi aipatu zituen egoera horren eragile gisa. Batetik, «Iruñean ez daukagu auditorio onik, ez dago gurea bezalako abesbatza handi baten kontzertuak hartzeko areto aproposik».

Bestetik, «tamainari dagokionez, eta ez kalitateari dagokionez, hemen ez daukagu orkestra handirik». Pablo Sarasate Orkestraren kalitatea goraiatu zuen Mujikak, eta jarraian honako hau zehaztu zuen: «Tamalez, ez da gauza bera Pablo Sarasate Orkestrarekin aritzea, edota ehundik gora lagunek osatzen duten Akitaniako Orkestrarekin jotzea. Benetan ikusgarria da Akitaniako Orkestrak, esaterako Verdiren 'Requiem-aren' unerik tentsoentan, atera dezakeen zarata».

Hain zuzen ere, Akitaniako Orkestrarekin diskoa grabatuko du Iruñeko Orfeoia heldu den urrian. Mahlerren bigarren sinfonia plastifikatu eta gero, hurrengo bi asteburuetan bi kontzertu eskainiko ditu Orfeoia Bordele inguruan. Aurretik uztailearen 10ean Leireko monasterioan ariko da Principe de Viana sarien banaketan, hil bereko 25ean Najerako Abesbatza Lehiaketan abestuko du, eta abuztuan Zangozan izanen da entzungai, bertako Erdi Aroko Ikasketan Astearen barnean.

BIHAR KONTZERTUA GAIARRAN Iruñeko Orfeoia, bestalde, a capella kontzertua eskainiko du bihar, Gaiarre antzokian 20.00etan, BBVren eskutik. Horretan entzungai izanen dira Verdi, Brahms, Reger, Guridi, Remacha eta Aita Donostiaren obrak. Tamalez, BBV bere bezeroen



Juan Carlos Mujikaren ustez Iruñean ez dago auditorio egokirik.

arteak banatu ditu sarrerak, eta ez da bakar bat ere salgai jarriko.

Mujikak kontzertuak bi zati ezberdinak izanen dituela azaldu zuen atzo eginiko agerraldian. Lehendabizikoa «gogorra, serioa eta zoragarria izanen da, kalitate gorenekoa», eta halaber, «lan handia eskatuko die abesbatzako kideei, edonor ez baita, esaterako, Regerren obra horiek abesteko gai». Bigarren zatia, berriz, atsedean hartzeko aukera eskainiko die entzuleei. Horretan «euskal folklore handia osatu duten konpositoreen lanak izanen dira entzungai», eta «lehen-go zatian entzuleek pilatutako tentsioa kentzen lagunduko du».

Mujikak laburbildu zuenez, «kontzertuak oro har maila handiko musika entzuteko aukera eskainiko du, hain zuzen ere or-

feoia bezalako abesbatza handi batek behar duen musika handia». Aipatzekoa da entzungai izanen diren obrak ez direla orfeoia errepertoriokoak, eta, Iruñeko abesbatzak kontzerturako bereziki prestatu dituela.

Muruamendiaraz Gipuzkoar erako auresku txapelketaren irabazle

DONOSTIA

Eduardo Muruamendiaraz bergararrak Gipuzkoar Auresku Txapelketaren lehen edizioa irabazi zuen larunbat gauean Ordizian. Egungo Euskal Herriko txapelkunak puntuaketa onena lortu zuen aureskua osatzen duten lau ataletan, eta ez zuen areririk aurkitu, kontutan izanik Ramon Sanchez Euskal Herriko txapeldunordeak ez zuela parte hartu.

Bigarren posturako lehia gogorra izan zen, eta azken arte itxaron behar izan zen txapeldunordea ezagutzeko. Erreteriak Jon Maiak eskuratu zuen Jose Ignacio Viguera donostiarraren aurretik.

Okerrak zuzenduz

Joan den igandean, ekainaren 26an, 'Hitz Lau' izeneko sailean Ramon Saizarbitoriak idatzirik 'Adio gisan, laburtuz' testua argitaratu zuen EGUNKARIAK. Idatzi horretan akats bat ageri da: pertsona izen bat falta da, haren lekuan 'x' bat ageri dela. Egileak berak, Saizarbitoriak, zuzendu nahi izan du arrazoi garbirik gabe sortu den akats hori hurrengo lerro hauen bidez:

«Azkenengo artikuluan esaten nuen x-ek errespetuz erantzuten ziola Xabier Leteri. Ez nuen errespetatzaile-errespetagarria inkognita bezala gordetzeko apropos egin, edo jolas modura irakurleak asma zezan. Ez dakit nola gertaturiko akatsa izan zen. EGUNKARIAren irakurle zintzoak jakingo zuen nolani ere inkognita bakantzen. X = Joxe Manuel Odriozola». Bakoitzari berea.

IRAGARKI MERKEAK (943) 46 90 22

GABRIEL ARESTI

AKADEMIA

Akademia zerbitzua udan, asignaturak erreperatatzeko euskaraz: fisika, ingelesa, matematika...

Uztailen eta Abuztuan

9etatik 13era

Informazioa: 424 88 80

BARNETEGIA

BAKAIKUN (Nafarroa)

Euskaraz bizitzeko.

Igeritokiak, frontoia, futbol zelaia, paseoak zaldizeta txirindulaz

Uztaila: 4-17/18-31
Abuztua: 1-14/15-28
Iraila: 1-21

GRAN VIA, 24. 423 23 12

SEBASTOPOLEKO TITIRITEROAK

TF: 908 77 23 47

NAIROBITARRA

LAPONIA, NORDKAPP, ...

GAUERDIKO EGUZKIAREN LURRALDERA.

20 lagun gehienez Uztailak 2tik - 30era

— 196.000 pta. — Abuztuak 3tik - 31ra

BANOA Bidaiak (94) 424 00 11

Pisu bat alokatzen dut, uztailearen 10etik irailaren 10a arte. Donostiako Antso Jakitunaren etorbidean. Deitu eguerdi eta gauez 27 73 64 telefonora.

IRAGARKI
MERKEAK
(943)469022

HERNANI
HIZKUNTZAK

GURE INGELESETXEA ikastaro erdi-trinkoak, uztailean berrazterketak, selektibitateak, H.E.O. jatorrizko irakasleak matrikula: ekainak 27, 28, 29 eta 30

Deitu 33 11 08 telefonora Kale Nagusia, 41-1. HERNANI

BIDAIAK



ESKAINTZAK
UZTAILA

IRTEERAK HEGAZKINEAN BILBOTIK (DONOSTIA-AIREPORTUA-DONOSTIA hurbiltzeko busa barne hartzen du)

MAROKKO (8 egun, ostatua-gosaria)	39.300 pta.
HIRI INPERIALEN ZIRKUITUA (pentsio erdia)	65.300 pta.
TUNISIA (8 egun, ostatua-gosaria)	51.000 pta.
TUNISIARAKO ZIRKUITU HANDIA (pentsio osoa)	84.300 pta.
GREZIA (ostatua-gosaria)	54.000 pta.
ATENAS + KRETA (ostatua-gosaria)	67.900 pta.

Barne: Donostia-Bilbo-Donostia autobusa + Bilbo-Helmuga-Bilbo hegaldia + egonaldia Hotel batean, gela bikoitzarekin + Aireportua-Hotela-Aireportua lekualdeketa

ERRESERBAK TELEFONOZ: 46 16 08

TEP BIDAIAK: San Marzial, 1 Tf.: 42 00 71

Urbietan, 59 Tf.: 46 06 88

UDAKO IKASTAROAK '94

LECHIZPI 6 Euskaltegia

MINZAPRAKTIKA EUSKALDUNTZEN EGA ALFABETATZEN HE-1 eta HE-2 SAKONTZE

Informazioa eta matrikula Lasala enparantza, 3 behe Tfnoa. 42 43 66

31 x 15 mm

EGUN BAT 1.100 pta/36 l.
ASTEBETE 5.400 pta/179 l.
BI ASTE 9.400 pta/315 l.

31 x 33ko
BI MODULO

EGUN BAT 4.400 pta/147 l.
ASTEBETE 21.400 pta/714 l.
BI ASTE 37.800 pta/1.260 l.
HILABETE 52.500 pta/1.750 l.

31 x 33 mm

31x33
MODULO

EGUN BAT 2.200 pta/74 l.
ASTEBETE 10.700 pta/357 l.
BI ASTE 18.900 pta/630 l.
HILABETE 26.250 pta/875 l.